

HARREMANAK EKOSISTEMAN

ELIKADURA

Izaki bizidunek elkarren beharra dute elikatzeko.

- Landareek beren elikagaiak ekoizten dituzte.
- Animalia belarjaleak landareak jaten dituzte.
- Animalia haragijaleek beste animalia batzuk jaten dituzte.
- Animalia orojaleek, berriz, hala landareak nola animaliak jaten dituzte.

EKOIZLEAK

Landareek beren elikagaiak ekoizten dituztenez, ekoizleak direla esante dugu.


KONTSUMITZAILEAK

Animaliak beste izaki bizidun batzuk janez bizi direnez, kontsumitzaileak direla esaten zaie.



Landareak ezinbetekoak dira, gainerako izaki bizidunen elikaduraren oinarrian daudelako.

OSATU ESKEMA HAU:



OSATU ESALDIAK EMANDAKO HITZEKIN:

ekoizleak

kontsumitzaileak

Landareek beren elikagaiak ekoizten dituztenez,
 direla esante dugu.

Animaliak beste izaki bizidun batzuk janez bizi direnez,
 direla esaten zaie.

HARREMANAK EKOSISTEMAN

ELIKA-KATEAK


Ekosistema bateko izaki bizidunak elkar janez bizi dira. Nola elikatzen diren erakusteko, eskema bat egin ohi da:
elika-katea.



ADIBIDEA

Adibidez, erbiek belarra jaten dute, eta otsoek erbiak jaten dituzte.

Izaki bizidun horiek elika-kate batean adierazten dira, irudien eta gezen bidez, elikagai den izaki bizidunetik hasieta eta hura jaten duenarekin amaituta.



Adibidea kontuan izanda, erantzun galdera hauek:

- Haragijaleak ala belarjaleak dira erbiak?

.....

- Eta otsoak?

.....

Osatu elika-katea izaki bizidunen izenekin eta irudia bere tokian jartzen:

